




Afiliazioa %1,0 hazi zen abuztuan Euskadin

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Abuztuan, Gizarte Segurantzako afiliazioa % 1,0 hazi zen, aurreko urteko hilabete beraren aldean.

Zehazki, 1.006.795 afiliazio erregistratu ziren, kopuru onena abuztuan, datuak eskura ditugunetik. Aurreko hilabeteetan bezala, emakumeek (%1,1) gizonek (%0,9) baino portaera hobea izan zuten.

Erregistratutako langabezia %2,0 jaitsi zen abuztuan

Langabezia erregistratua Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Lanbide

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %2,0 murriztu zen aurreko urteko abuztuaren aldean. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 109.169era iritsi zen. Beherakada hori gizonen kolektiboaren (-%1,9) eta emakumeen kolektiboaren (-%2,1) bilakaera onak eragin zuen.



Azalera handietako salmentak %0,4 gehitu ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Uztailean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,4 gehitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Aurrerapen hori, batez ere, gainerako produktuen %0,6ko hazkundeak bultzatu zuen. Elikagaien salmentek ere lagundu zuten, baina hazkunde apalagoarekin (% ,2).

Azalera handietako enplegua hazi egin zen uztailean

Azalera handietako salmentetako enplegua
Urte bakoitzeko uztaila. Indizea



Iturria: Eustat.

Uztailean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako okupatutako langileak %1,4 gehitu ziren iazko hil beraren aldean, 2015etik uztaileko daturik onena. Hilabete arteko tasetan, okupatutako langileak %0,8 gehitu dira aurtengo ekainaren aldean, eta daturik onena da urtariletik hona.